



### SARBIDEAK



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



KANPEZUKO-ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA  
CUADRILLA DE CAMPEZO-MONTAÑA ALAVESA



**GR 38ko interpretazio zentroa:**

(Lagrán) 945 161 598

**Santikurutze Kanpezuko turismo bulegoa:**

945 405 424

# IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: GR 38 Etapa 2.B Lagrán-Albaina

Etapa honean Lagrán eta Trebiño arteko pagadi zabalak zeharkatzeko aukera izango dugu. Mojón del Avellano izeneko mugariak markatzen du konderriko sarrera eta bertatik haraneko laborantza lurren panoramika ederra azaltzen zaigu. Etaparen bukaera puntua den Albainara heldu aurretik bailarako leku interesgarrienetako bat ezagutzeko aukera izango dugu: Lañoeko eremutarren kobak.

## 0 km.- LAGRÁN

Uri zaharreko atarrietako batetik irtengo gara Lagranetik. Herrigunea atzean utzi eta, ikuztegi zaharraren ondotik pasatuko gara. PR-A 51arekin batera egingo dugu Mojón del avellanoraino doan bidea. 3 km-ko ibilbidea pagadi artean doa, tarteka informazio panelak aurkeztuz, harik eta Lagran eta Trebiño arteko muga zehazten duen mugari bitxira heldu arte.

## 4,7 km.- MOJÓN DEL AVELLANO

Muga zeharkatu eta berehala azaltzen da gure aurrean Trebiñoeko lurralde historikoa. 1.161 urtean Nafarroako erregeek sortutako konderrri hau Gaztelako erresumaren esku geratu zen 1200. urtean, eta horrela mantendu da gaur egun arte. Ezkerrerantz abiatzen den ibilbideak pagadi zabal bat zeharkatu eta Santa Marina basilizaren ondotik pasatu ondoren Lañoira helduko da. Eliza ondoan aurkitzen dugu enparantza eta bertan iturria eta gaur egun desagerturik dagoen errota batera zihoan ur-salto bitxia aurkituko ditugu. Lañoeko herrigunea zeharkatu eta errepedetik jarraituko dugu, aurrean azaltzen zaigun haitzarterantz.



Errepidearen albo bietako haitzetan daude Lañoeko eremutarren kobak (Las Gobas eta Santorkaria). Koba bitxi hauek bakardadean bizi nahi zuten lehenengo kristauek zulatu zituzten V. eta VI. mendeen artean. Errepidea albo batera utzi eta ezkerretara abiatzen den pista aurrera egingo dugu. Estutuz doan pista bidezidor bilakatu eta Las Gobasera heltzen da. Merez du hauek bisitatzeko tartetxo bat hartzea. Bidezidorretik aurrera egin eta ia berehala La Dotorra koba ondotik pasatuko gara. Xenda pista bukatzen da. Hau hartu eta lehenengo bidegurutzean aurrera eta bigarrenean eskumara eginez Albainara helduko gara.

## 11,2 km ALBAINA

Barrundia errekastoa zeharkatu ondoren Albainako kale nagusian sartuko gara. Hartziko etxetzar artean enparantzara helduko gara, etapa bukaerara.

### MIDE



11,2 Km



208 m



3 h 10'

Gogortasuna



1

Severidad

Orientazioa



2

Orientación

Desplazamendua



2

Desplazamiento

Esfortua



3

Esfuerzo

MIDE ibilbideen gogortasun teknikoak zein fisikoa baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna



Desplazamenduaren zailtasuna




Behar den ahalegin maila

### PROFILA



© Mondik

**BUKAERA**



**HASIERA**

Km



**LA TRAVIESA**

Kantabria mendilerroa zeharkatu ondoren eta Trebiñoko lurraldeetan sartu baino lehen ezinbesteko geldiune bat izango dugu: Lagraneko La Traviesa, GR 38 -Ardoaren eta arrainaren ibilbidearen interpretazio zentroa, alegia.

Bertan teknologia moderno eta ikusentzunezko simulazioen bitartez antzinako merkatal-ibilbide honen jatorria eta bilakaeraren inguruko informazioa aurkituko dugu.

**IBILTARIAREN DEKALOGOA**

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin alde zurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako crema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu